

Erreferentzia XXI. menderako

Juan Luis Zabala

In: Berria: *Berria. Urtekaria 2004*, Berria, Andoain, 2005: 96-97.

Urriaren 4an hil zen Martin Ugalde, 82 urte zituela, Hondarribian. Euskal kulturaren munduan XX. mendeko pertsonarik eraginkorrenetakoa izan zen: kazetari eta idazle bikaina, Venezuelan lehenik eta Euskal Herrian gero, ipuingintza berritzen; erbesteko Eusko Jaurlaritzako kontseilari; *Euskaldunon Egunkaria*-ren bultzatzaile... XXI. mendean ere nahitaez gogoratu eta erreferentziatzat hartu beharrekoa.

Martin Ugalde nor izan zen oso ondo islatu zuen haren heriotzak izan zuen oihartzun zabalak. Euskal kulturaren eta politikaren munduetako ordezkari ugari bildu zen Hondarribian, urriaren 5ean, haren familiarengana hurbilduta, Martin Ugalderi azken agurra emateko. Arlo askotakoak eta ideologia askotakoak ziren ordezkari horiek, baina aho batekoa izan zen guztiek Ugalderi agertu zioten errespetua eta miresmena. Ohikoa ez den adostasuna sorrarazi zuen bere inguruan Martin Ugaldek.

Andoainen (Gipuzkoa) jaio zen Martin Ugalde Orradre, 1921eko azaroaren 11. 1936an piztu zen gerrak familiaren sakabanaketa ekarri zion, artean oso gazte zela: aitak, EAJko zinegotzia zenez, mendira ihes egin behar izan zuen; Martin eta Joseba anaiek amarekin erbesteratu behar izan zuten, Frantziara alde eginda, 1937an.

Gurseko kontzentrazio eremura eramán zuten alemanek, Frantzia hartu zutenean, eta hilabetez atxiki zuten han. Gero, 1940ko urrian, Andoaina itzuli zen, baina gerraren ondorengo Andoainek ez zuen gerra aurrekoaren antz handirik.

Zazpi urte gogorren ondoren –dena baitzen oztopo eta zailtasun galtzaileentzat gerra osteko urte ilunetan–, 1947ko irailean Caracasa joan ziren Martin, Joseba eta ama, aitarekin elkartzera, ordurako han bizi baitzen hura, erbesteratua.

Venezuelan askatasuna ezagutu zuen Ugaldek, bere lurrian ez bezala. Idazteko zaletasunari irtenbidea aurkitu zion han, hala kazetaritzan nola literaturan, beti bertako gaztelania erabiliz. *Elite* aldizkarian lan egiteko eskaintza egin zioten, eta aurki hartu zuen aldizkariko zuzendari kargua. Lan gehiegiak estutua, Michiganen eman zuen tarte bat, ingelesa ikasten, eta handik Caracasa itzultzean ezagutu zuen Ana Mari Martinez Urreiztieta, hiru urte geroago bere emazte izango zena.

Kazetari lanak utzi gabe, ipuingintzan ere oso harrera ona izan zuen. *El Nacional* egunkariak antolatutako ipuin lehiaketa irabazi zuen *Un real de sueño sobre un andamio*ekin. Izenburu horrekin argitaratu zuen lehen ipuin liburua, 1957an; 1958an beste ipuin liburua bat kaleratu zuen: *La semilla vieja*.

Ospe handia lortu zuen Venezuelán, erreferentzia garrantzitsu eta ezagun izatera heldu zen, hala kazetari nola idazle gisa. Baina Ugaldek Euskal Herrira itzultzea zuen buruan, batez ere seme-alabak euskaldunak izan zitezen nahi zuelako. 1969an itzuli zen.

Aurretik emaztea eta seme-alabak etorri ziren, eta Hondarribian bizitzen jarri. Emazteak lortu zion Martin Ugalderi itzultzeko baimena, baina baldintza zorrotz bat tartekoa zela: ezin zen inondik inora ere politikan sartu.

Itzuli zenean, ordea, ez zen geldirik egon, ezkutuko lana egin behar izan bazuen ere, klandestino. EAJren *Alderdi* aldizkaria zuzentzen hasi zen, 1971n, eta alderdian gero eta itzal handiagoa hartzen hasi zen. Joseba Rezola lehendakariordea hil zenean, erbesteko Eusko Jaurlaritzako kontseilari izendatu zuten. 1973an, Poliziak Hego Euskal Herriak kanpora egotzi zuen, eta hiru urte eman zituen Donibane Lohizunen.

Han ekin zion *Síntesis de la Historia del País vasco* idazteari. Euskal Herriaren historia beti bestek kontatzen zutela ikusirik, euskaldun baten ikuspegitik kontatu beharra zegoela uste zuen Ugaldek, eta, horrelakoetan ohi zuen bezala, gupidarik gabe ekin zion lanari. Historiaren berreskuratze ahalegin horren fruitu dira *Hablando con los vascos* eta *Hablando con Chillida* liburuak ere.

Francisco Franco diktadorea hil eta gero, 1976an, Hondarribira itzuli zen Ugalde, eta hurrengo urtean *Deia* egunkariko zuzendariorde eta euskarazko orrialdeak egiten zituen taldearen arduradun izendatu zuten. Carlos Garaikoetxea Eusko Jaurlaritzako lehendakariak, Kultura Saileko Euskarazko Arazoetarako zuzendar izendatu zuen, 1982an. Gero, EAJren banaketa prozesu mingarriaren ostean, EA alderdian afiliatu zen, 1985ean.

Ordurako euskarazko ipuingintzan barneratua zegoen Ugalde, eta 1984an *Mantal urdina* ipuin bilduma eman zuen argitara. Ipuingintza eta nobelagintza ez zituen inoiz bazterrean utziko, eta horren lekuko dira Ugaldek geroztik argitara emandako hainbat liburu: *Bihotza golkoan* (1990) eta *Erretiradako tren* (1997) ipuin liburuak; eta *Itzulera baten historia* (1990), *Pedrotxo* (1995) eta *Mohamed eta parroko gorria* (2000) nobelak. Bide horren hastapena, alabaina, 1961ean Venezuelan argitaratu zuen lehen euskarazko ipuin bilduman zegoen: *Iltzalleak* (1985ean batura aldatua argitaratua Euskal Herrian: *Hiltzailleak*). Ugaldek berak gerran eta ondorengo urteetan jasandakoak daude liburu horretako ipuinen oinarrian.

Ugalderen literatur lanaz, honako hau idatzi zuten Koldo Izagirrek eta Xabier Mendiguren Elizegik, *Euskal literaturaren antologia* liburuan: "Ugalderen ipuinen meritua bi aldiz da azpimarratzekoa. Lehenik, berez duten balioagatik; bigarrenez, bera izan zelako lehena ipuina literatur genero moderno gisa lantzen. Ordura arte, ipuina kontakizun erraz, folkloriko eta irriagarria izaten zen beti euskal literaturan. Hego Amerikan tradizio handia zuen ordea, genero autonomo eta seriotzat zeukaten bertan bai idazle bai irakurleek, eta han bereganatutako teknikak euskal lanetan txertatzen hasi zen Ugalde". Anjel Lertxundik eta beste hainbat idazleek ere gogotik goraiatu dute Ugalderen narratiba, bai euskarazkoa eta bai gaztelaniazkoa.

80ko hamarkadako azken urteetan, euskarazko egunkaria sortzeko asmoa agertu zioten Ugalderi Joxemi Zumalabek, Joan Mari Torrealdai, Iñaki Uriak eta beste eragile batzuek. Ugaldek harrera ezin hobea egin zien hasieratik, baita laguntza eskaini ere, guztizko amets kuttuna baitzuen euskarazko egunkaria. *Euskaldunon Egunkaria* sortu zenean, 1990eko abenduan, Administrazio Kontseiluko lehendakari izan zen hasieratik, gero osasun arazoek ardura hori alde batera uztera behartu zuten arte.

Euskaldunon Egunkaria-ren aurkako auzian auzipetu egin zuen Juan del Olmo epaileak, *Euskaldunon Egunkaria* itxi eta gero. Oso mingarria izan zen kolpe hura Martin Ugalderentzat eta bere familiarentzat; eri zen ordurako, eta erasoari erantzun egokia emateko ezindua. Baina Del Olmoren jokabidearen aurkako eta *Euskaldunon Egunkaria*-ren nahiz Ugalderen aldeko erreakzioak ugariak izan ziren Euskal Herri osoan, eta baita Euskal Herritik kanpo ere.